

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEAREN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Jarduera sailkatuaren lizentzia eskatzea

Jarduera instalatzeko udal lizentzia eskatu dute ondoren adierazten diren pertsonak, azaltzen diren lekuetarako:

Dosier-zenbakia: 2020/LACACT00039

Eskatzailea: A01028125

Jarduera: Gasteiz Kafe Antzokia + Euskararen Etxea (kultur etxea, antzokia, kontzertu-aretoa, ostalaritza).

Kokalekua: Errementari kalea, 30-32 eta Zapatari kalea, 33

Horrenbestez, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Legearen 58. artikuluan xedatutakoaren ildotik, jendurrean jartzeko epea zabaltzen da, jarduera horiek nola edo hala eragiten dietela uste dutenek horiei buruzko dosierak aztertzerik izan dezaten Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko Administrazio Zerbitzuan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea), jendurreko orduetan, eta egokituz jotzen dituzten alegazioak egin, hamabost eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo lehenengo egun baliodunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko azaroaren 6an

Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren administrazio-burua

EUSEBIO-MARTÍN MACHO PÉREZ